

Pello Apezetxea

APAIZA

Gutxiagotiak

Euskal Herria herri txikia da, mendeetan zehar txikiago bihurtua. Gutxiagotzen joan gara euskaldunak, mendeetan zehar alde bateko eta bertzeko jende arrotzek menperatzen eta bereganatzen joan ahala, haien hizkuntzak nagusitzen joan diren neurrian. Gutxiagotzen joan gara euskaldunak, bertako jendeek beren interes sozio-ekonomikoak euskararen ginetik ikusi eta bilatu dituztelako. Gutxiagotzen joan gara euskaldunak, gu baino gehiago eta indartsuago direnen izaera eta arrazoiak gureak egin ditugulako, hobeak direlakoan; horrela gu ere handiagoak eta indartsuagoak izanen garelakoan. Horrela, kanpotik etorritakoek erdaldundu dute Euskal Herria, baina baita bertakoek ere.

Eta horretan ari dira kanpokoak, gaur egun ere. Eta horretan bertako hainbat ere. Gertakari hau Euskal Herri osoari badagokio ere, eremu batzuei nabariago. Nafarroari, errate baterako. Hemen Francoren diktadura berpiztu bailitzan bizi gara, hainbat ikuspuntutatik begiratuta. Badakit bertze lurraldeetan ere antzera pentsatzen dutela bertako egoeraz. Hala ere, Nafarroa eskuindartasunak markatuagoa duela iruditzen zait: bai Administrazioa, kultura mundua zein Eliza.

Agintari nagusiak euskara desagerrarazteko ahaleginetan dabilta, ezinbertzeko salbuespe-



ALBERTO ELOSEGI

nak tarteko izanagatik. Ez dakit, historian zehar, inoiz horrelako jokaerarik izan duten nafar agintariek. Hori, gainera, gauza arrunt eta normal bailitzan egiten da, demokrazia deitzen den agintepean, herri honen izaera bera eta honekin lotuak doazen eskubideak ukatzen dira. Harrigarria? Baina horretaraino bihurtu da diktadura demokrazia izeneko egitura eta jokaera politikoa. Eta horrela jarraitzen dute Euskal Herria txikiagotzen, euskaldunak gutxiagotzen.

Eta horrela jarraitzen dugu euskaldunok, ez denok noski, eta beharrik, txikiagoak garelako, gure eskubideak ere txikiagoak direla pentsatzen. Zergatik, bertzela, erdaldunen eskubideen izenean gureak baztertu egin behar ditugula onartu? Zergatik onartu, erdaldun batenganako errespetuagatik egoki dela hamar euskaldun ukatzea? Zergatik uste izan, euskaldunek erdara ulertzen badute, –oroitu ikastera behartzen gaituztela–, ez dela euskaraz zergatik egin. Hori etxean ikusten ahal dugu, edo lagun artean. Eta gauza bera aunitz elizetako ospakizunetan. Eta euskal telebista aipatzen badugu? Eta... eta... Nola, bada, ez gutxiagotu horrela? Euskaraz bizitzeko egiten diren ahaleginak eginda ere, sinesgaitz gertatzen zait gero eta gehiago garelara. ■



Hemen Francoren diktadura

berpiztu bailitzan

bizi gara, hainbat

ikuspuntutatik begiratuta.

Badakit bertze lurraldeetan ere

antzera pentsatzen dutela

bertako egoeraz



TXANDAN

Joxerra Garzia



Bost gezur potolo, hamaika egia erdi eta hamalau aitzakia merke asmatu eta erabiliak gara, garai batean, ustez ezkertiar eta funtsez futbol zale izan garenok.

Beharko asmatu, futbol zalea izatea iraultzaren etsaiei kome- ni zitzaien jokoan erortzea baitzen garai batean, edo, are okerrago dena, iraultzaren jokoz kanpo geratzea.

Orain, berriz, ez dago intelektualik, ez tertuliakide ez filosoforik, are gutxiago soziologo eta antropologorik, futbolari muzin egingo dionik, futbola hitzetik hortzera aipatu eta hitzez eta hortzez laudatuko ez dizunik. Pentsamendu ahularren garaiotan, futbola bide da ideologia sendo bakarra. Bizitzaren ispilu omen baita orain futbola; globalizazioak hustu-

Jokoz kanpo

tako identitatearen globoa puztu dezakeen aire garden ezinbestekoa; gizarte modu gero eta hotzagoon giroa epel dezakeen emozio-su benazko bakarra.

Entzuteko gaude, baina larri ibili, ingurugiroaren aldeko borroka-zelaian ere futbola dugula aitzindari eta eredu.

Zer nahi duzue esatea? Niri susmagarri egiten zait hori guztia, ez baitago erabateko adostasuna baino gauza tristeagorik. Lehen behintzat, bakoitzak bere gezur, egia erdi eta aitzakia merke propioak asmatzen genituen. Orain, berriz, badirudi denok garelara Gezur Bakar beraren txotxongilo.

Zer axola dute hauteskunde emaitzek, gure euskal futbol talde kuttunek maila galtzen badute gurea ez omen den ligan? ■